

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1335

IRAGARKIA, 2024ko martxoaren 7koa, Industria Administrazioaren Bizkaiko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita honako proiektu hau: baterien bidez energia biltegitzeko «BESS PB Babor 3» izeneko instalazioa, ebaketa zentroa eta 132/30 kVko Arena Portu azpiestaziora doan ebakuazio linea jartzea Santurtzi eta Portugaleteko udal-mugarteetan (Bizkaia).

Jendaurrean jartzen da aurretiko administrazio-baimena eskatu zaion instalazio elektrikoa, martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan xedatutako ondorioetarako (2020-04-24ko EHAA) –dekretu horren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak–, eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikuluan (2013-12-27ko BOE) xedatutakoarekin bat etorritz.

Esp.: 48-GE-Y-2024-00003.

– Eskatzailea: Enigma Green Power 10 SL.

– Kokapena: Santurtzi eta Portugaleteko udal-mugarteak.

– Exekuzio-materialaren aurrekontua: 34.719.689,50 euro.

– Helburua: baterien bidez energia biltegitzeko sistema berria, ebaketa zentroa eta aparteko espediente batean (48-GE-Y-2024-00005) tramitatutako 132/30 kVko Arena Portu azpiestaziora doan ebakuazio linea ezartzea, bertan dagoen 132 kV-ko sarera konektatuta.

– Instalazioaren ezaugarriak: Javier Martín Anarte industria-ingeniari teknikoak 2024ko urtarri-lean sinatutako proiektuan adierazitakoak. Proiektua espedientean jasota dago.

– Eskaeraren helburua: aldez aurreko eta eraikuntzako administrazio-baimena.

Eta hori guztia argitara ematen da nornahik proiektua azter dezan Sail honen Bizkaiko Lurralde Bulegoan (Bilboko Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua) edo url honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Bidezko iritzitako alegazioak –bi kopia– dagokion lurralde ordezkaritzan aurkeztu beharko dira, hogeit eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bilbao, 2024ko martxoaren 7a.

Industria Administrazioaren Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.